

LURRETIKO ELIKADURA- -SEKTOREA. EGOERA ETA PERSPEKTIBAK

Lan Kide Aurrezkia

Ikerketa Ekonomikoen Departamentua

Artikulu honetan ekonomi sektore berezi baten azterketarekin egiten dugu topo. Sektore honen berezitasuna hiru sektore produktiboetarako hedapenean datza. Honela, analisisia ekonomi sektore bakoitzaren esparruan Euskal Herriko elikadura-sektoreak dituen ezaugarriak aztertuz egingo da, hots, nekazaritzan, sektore transformatzailean eta banaketa-sektorean. Bukatzeko, EEEko Akta Bakarrak ezarriko dituen baldintza berriak kontutan hartuz ondorio gisako azken burutapenak aurki daitezke.

Sarrera

Lurretiko elikadura-sektorean integratzen diren iharduera produktibo, transformatzaile eta banatzaileei aplikatu beharreko lehen ezaugarriak, *zabaltasuna eta konplexutasuna* dira, zeren eta multzo horretan partaide bait dira lehen sektorea (oinarrizko nekazal produkzioa), bigarrena (elikadurazko produktuen transformazio industrialak), eta hirugarrena (berezko nahiz transformatutako elikadurazko produktuak kontsumitzailearen eskura jartzea, komertzializazio-kanal konplikatu eta aldakorrez baliaturik).

Honela bada, sarritan aipatu ohi da lurretiko elikadura konplexu baten presentzia, sektore desberdinen arteko *salerosketako harreman* indartsuen eragina aipatuz. Hori euskal kasura aplikatuta, Nafarroako lurretiko elikadurazko sektorean egiaztatzen bada ere, ez da hain argia Euskal

Herriko Komunitate Autonomoari dagokionean, zeren honen ekonomian iharduera hauek protagonismo txikiagoa bait daukate.

Dena dela, Nafarroako eta Euskal Komunitateko elikadura-sektoreek duten ezaugarri amankomuna, input-output analisiaren terminologia erabiliz, *iharduera biderkatzaile handiak* izatea da, hots, elikadurazko produktuen azken eskariaren gehikuntza beste sektore ekonomikoetan sortzen dituen ondorioak (bitarteko input-en erosketa-katearen bidez) garrantzitsuak direla. Ondorioz, elikadurazko produkzioaren sektorea iharduera ekonomiko orokorra bultzatzeko, zalantzarik gabe, gaitasun handienetako sektorea da.

Nafarroako eta Euskal Komunitate Autonomorako erabilgarri dauzkagun azkeneko input-output taulak erabiliz, 1980koak hain zuzen, urte honetan elikadurazko produktu transformatuen

Elikadurazko sektorearen garrantzi kuantitatiboa. 1985

Kontzeptua	Nafarroa		E.K.A.		Hego Euskal Herria	
	Enplegua	Balio erantsi gordina (*)	Enplegua	Balio erantsi gordina (*)	Enplegua	Balio erantsi gordina (*)
Nekazaritza, abeltzantza, oilartzantza.	23.576	29.828	29.586	22.291	53.162	52.119
Elikadura, edariak eta tabakoaren industria	11.747	29.628	16.408	51.477	28.155	81.105
Merkatal sektorearen %45a	8.045	18.033	34.512	73.484	42.557	91.517
Elikadura-sektorearen batuketak	43.368	77.489	80.506	147.252	123.874	224.741
Ekonomiarena, guztira	170.067	410.244	644.041	1.728.522	814.108	2.138.766
Elikadura-sektorea/guztira (%tan)	25,5	18,9	12,5	8,5	15,2	10,5

Iturria: Banco de Bilbao. Espainiako Errenta Nazionala eta probintziakako banaketa.

(*): M pta-tan

azken eskariak, hipotekikoki, milioi bat pezetako hazkundera izan balu, honek ekonomiaren orokortasunean izango zukeen ondorioa, 1,7 milioi pta.ko hazkundera bultzatzea izango litzatekeela estimatzen da.

Lurretiko elikadurazko multzoaren eta ekonomia osoaren arteko interrelazioaren lehen ideia hau kontutan hartuta, ondoren multzo hori integratzen duten hiru sektoreen, hau da, lehen, bigarren eta hirugarrenaren hurbileko egoera eta eboluzioari buruzko alderdi garrantzitsuenetarikoak komentatuko ditugu, baina lehenago, esan dezagun, datu kuantitatibo soila besterik ez bada ere, elikadurazko sektoreak euskal ekonomia osoaren balio erantsiaren %10,5 suposatzen duela eta, 124.000 lanposturekin, euskal biztanleria okupatuaren %15,2 dela.

Nekazal sektorea

Garrantzi ekonomikoaren ikuspegitik, Euskal Herrian, herrialde industrialdu gehientsuetan bezalatsu, txikia da, ekonomiaren osotasunean, eta duela urte gutxi batzutan ez bezala, nekazal sektorearen pisu erlatiboa, hain zuzen, euskal Barne-Produktu Gordinarekiko eraginaren estimazioa % 3,4ean kokatzen bait da.

Nekazal sektorearen *garrantzi erlatiboaren galerari* buruz hainbat komentario egin ditzakegu, hala nola:

- Esan bezala, aipatu portaera hori herrialde industrialdu guztietan ikus daiteke (adibide gisa, esan

dezagun EE.BB.etan eta Britainia Handian nekazal sektoreak iharduera ekonomiko erantsiaren % 2,2 suposatzen duela), eta honek berez adierazten diguna zera da, ekonomiaren gainontzeko sektoreek hazkunde-bide handia-gotik jarraitzen dutela.


- Azpimarratu behar da kontrako eboluzio hori, neurri handi batean bederen, sektore honen *errenta-sorkuntzarako ahalmen eskasari* lepora dakiokela. Izan ere bere *ituruzko produktibitatea*, batezbeste, euskal ekonomiari dagokionaren erdian kokatzen bait da, eta gainera, konstatatu behar da lehen sektorearen garrantzi erlatiboaren galera *prezioen bidetik* sortzen dela, hau da, eskaleei salmenta-prezioen bidetik kostuen igoerak igortzeko ahalmena txikiagoa delako sektore honetan, ekonomia osoarenean baino. Horrela, azken urteotan (1975-1986) ekonomia globalki hartuta urteko batezbesteko inflazioa, Estatuko BPGaren prezio-indizeen bidez neurtua, % 15koa izan da, lehen sektorean % 11,3koa izan den bitartean.
- Sektore honetan *enpleguak* izan duen portaera da nabarmendu beharreko beste alderdi bat. Herrialde aurreratuetakoa nekazal sektorean ere ohizko joera da lanpostuak murriztearena. Azpimarra dezagun 1975-85 hamarkadaren krisialdi gogorreko epealdian beste sektoretan eman

den lan-alternatiba ezak ere ez duela geldiarazi, inola ere, nekazal indarren beherakada, eta areago, termino erlatibotan, euskal lehen sektorean gertatutako galera (%40 10 urte horietan, 103.000 postutik 61.000ra pasatuz) industrian edota eraikuntzan gertatu dena baino handiago izan da. Ezaguna bada ere, aipatzekoa da nekazal enpleguen murrizketa gehienak adin altuko langileei egozten zaizkiela, eta horiek lana utzi egiten dutela beste sektoretan lan alternatiborik bilatu gabe, hots, langabetu bihurtu gabe. Kontutan hartu behar da, 1982ko Nekazal Zentsuaren arabera, Euskal Herrian sektore horretan diharduen langilegoaren %43,5ak 55 urte edo gehiago bete dituela.

Nekazal sektorearen produkzio-egiturari dagokionez, hauek lirateke nekazal eskaintzaren bi ezaugarri nabarmenenak:

- *Atomizazioa*, produktugile gehiegi dagoela, orohar desberdintasun gutxiko produktuak erosle-kopuru txikiagoari eskainiz, eta normalean desoreka sortuz nekazal produktuen saltzaile eta erosleen negoziatorako ahalmenetan.
- Maila produktiboan *eskala-ekonomien* existentzia nabarmena, hau da, harreman nahiko hertsia nekazal esplotazioaren neurriaren eta bere produktibitate-mailaren artean, dimentsioa ez bakarrik bere hedaturari dagokionean, baizik eta kapital eta gizafaktore produktiboen zuzkidura ere kontsideratuz.

Intuitiboki, produktibitatearen eta esplotazio-neurriaren arteko harremana ikus daiteke grafiko honetan, pertsona bakoitzeko balio erantsi gordinaren neurketa erabiliz (Urteko Lan-Unitatea: ULU).



Iturria: Elaborazio propioa esne-produkzioan espezialdutako 118 abeltzantzako muestra batetik abiatuz.

Eskala-ekonomia horietatik atera daitekeen ondorioa zera da: zalantzan ipintzekoa dela garapeneko alternatiben bideragarritasuna eta euskal nekazaritzaren konpetibitatea baldin eta esplotazioen batezbesteko dimentsioa handitzeko beharra kontutan hartzen ez bada, zeren, Araba eta Nafarroako 12,8 eta 12,1 hektareako neurriak, EEEko batezbestekoekin paretsu badatoz ere, konparaezinak dira, ez neurritz ezta produktibitatez ere, Frantzia bezalako herrialde batekin. Bizkaia eta Gipuzkoari dagokienez oraindik atzeratuago dauzkagu (2,4 eta 3,8 hektarea batezbeste), kontutan hartzekoa bait da, abere-produktuen espezializazioari dagokionean, behi-esnea kasu, askoz ere nekazaritza aurreratuagoa daukatela Europako herrialdetako lehiakideek.

Nekazal sektorearen produkzio-egitura eta eskala-ekonomien magnitudea delako gaiet buruz, aztertu berri ditugun esne-produkzioan espezialdutako behi-esplotazio batzuren laginketa baten arabera, Euskal Herriko esplotazio standarrak kontsideraturik, hau da, 8 eta 48 arteko esne-behi dituzten taldeak, kalkulatu dugu dimentsioa eta esplotazio baten zuzkidura-faktoreen hazkundearekin, %30eko gorakada baina handiagoa lortzen dela produkzioan, horrela eskala-ekonomiek nekazal produkzioan duten inportantzia baieztatuz.

Matematikoki, emaitza horretara iristeko modua zera da, datu eskuragarriei produkziozko funtzio bat egokitzea. Hauxe da funtzio horietako bat:

$$\text{BEG log} = 13,142 + 1,021 \text{ ULU log} + 0,27 \text{ AHU log},$$

BEG = Balio Erantsi Gordina

ULU = Urteko Lan-Unitatea (langile-kopurua)

AHU = Abere Handiko Unitateak (abere-kopurua)

Ekuazio honek % 91eko R² bat erakusten du eta adierazle oso esanguratsuak.

Alderantziz, inbertsio horiek burutzeko behar den *esfortzu finantzarioari* aurre egiteko esplotazio-mota hauek dauzkaten zailtasunak konstatatu ahal izan ditugu. Izan ere esne-abelzantza hauentzako inbertsioen produktibitate marjinala, gure analisia egiterakoan, diru-kostuaren lau puntu portzentualen azpitik kokatzen bait zen.

Aldi berean, esne-produkziozko esplotazio hauen analisitik ateratzen den beste emaitza bat, seguruenik beste azpisektoreei ere aplikatu dakiekena, zera da: errendimendu eta produkzio-bolumenak gehitzen baditu ere *esplotazioaren kanpoko input korronteen gastu* handiagoa konstatatzen dela, honek ez duela berez errentagarritasuna gehitzen, baina trukean interes ekonomiko altuagoa eta esplotazioaren errekurtsu naturalen aprobetxamendu hobeak dituela. Geure kasuan abereen elikadura kontzentrazio-zati handiagoekin egiten bada, sarritan errentagarritasunaren kalterako izan ohi dela baieztatu dugu, zeren, errentagarritasunaren gorakada, produkzioaren hobakuntzak eta esplotaziozkoak bertako belarraren kontsumotik lor daitezkeela frogatu bait dugu.

Sektore transformatzailea

Transformazio-sektoreaz arduratuko garen atal honetan, bistakoa da nekazal produkzioaren eta transformazio industrialaren arteko lotura. Izan ere Komunitate Autonomoko eta Nafarroako nekazal produkzioaren % 72,4 eta % 86, hurrenez hurren, prozesu transformatzaile bat jasaten du eta gainerakoa bakarrik (% 27,6 eta % 14,0 alegia) da zuzenean kontsumora destinatzen dena.

Elikadurazko transformazio kuantitatiboaren garrantziari buruz, iharduera hau Euskal Herrian, gutxi gorabehera, 1.000 establezimendu industrialetan egiten da, 250.000 M. pta-tan baloratu-tako produkzioa lortzen delarik eta 28.000 pertsonentzako lanpostuak, hau da, euskal enplegu industrialaren % 8,6. Balio erantsiko terminotan, Euskal Herriko elikadura-industria % 7,9 da Espainiarekiko, eta estatuko metatuan orohar euskal industriari dagokion % 12,8 baino bajuagoa.

Hauek lirateke sektore honen oinarritzko ezaugarri aipagarrienak:

1. Lehen sektoretik sortzen diren input-ekiko menpekotasun handiegia, ondorio hauek dakartzana:

1- Produkzio-mota batzuren *temporalitasuna*, bereziki barazki-kontserbak, arraina eta ardoaren elaborazioan produkzio-ahalmenaren erabileran arazoak sortzen bait ditu eta bereziki finantz izaerakoak kapital

zirkulatzaile altua eskatzen duelako, lehengaien erosketa denbora laburrean egin behar denez baina produktu elaboratuen salmenta denboran zehar asko luzatzen da.

2- *Lehen transformazioko industriaren* nagusitasuna, enpresa askoren iharduera nekazal produktuen manipulazio hutsean geratzen da, eta enpresan bertan sortzen den aberastasuna eskasa da. Ondorio argia dakar horrek, hau da, euskal elikadurazko industriaren balio erantsia % 27,5 da produkzioarekiko, industriaren multzo osoko portzentaia % 34,7 den bitartean.

2. Nekazal produkziarako komentatu dugunaren alderantziz eta azpisektoreen arteko desberdintasunak salbu, orohar *ez dira detektatzen eskala-ekonomia garrantzitsuak* elikadurazko produkzioan, baina hau ez da oztopo industria-mota honetan lehiakide berrien sarrerari hesi gogorrek jartzeko, baina sarrera-hesi hauek ez dute bere jatorria produkzio mailako eskala-ekonomiatan, baizik eta zuzenago organizazioko mailan, esaterako, banaketa edo publizitatezko gastuen arloan edota garapena edo ikerketa-mailan.

Gai honen aurrean interesgarria dirudi zehaztasun batzuk eskaintzeak:

-Jakina denez, sektore honetako produkzioko establezimenduen *neurria* beste sektoretakoa baino txikiagoa da, eta 3 pertsona baino gutxiagoko artisau-establezimen-

Euskal elikadura-industriaren azpisektore garrantzitsuenak. 1983-84ko batazbestekoa.

EISN* (CNAE) Sektorea	Nafarroa						E. K.A.			
	Produkzio Balioa (Mpta.tan)	Balio Erantsi Gordina	Enplegua	BEG		Produkzio Balioa (Mpta.tan)	Balio Erantsi Gordina	Enplegua	BEG	
				Prod. (%)	Enplegua Mpta.tan				Prod. (%)	Enplegua Mpta.tan
48 Mataderiak eta haragi-industriak	16.408	4.436	1.698	27,0	2.612	18.478	9.804	1.416	53,1?	6.924?
49 Esneki-industriak	12.198	2.490	777	20,4	3.205	17.363	3.227	1.129	18,6	2.858
50 Barazki-kontserbak	21.720	5.964	3.823	27,5	1.560	798	121	180		
51 Arrain-kontserbak	2.079	352	148			117.410	29.820	16.632	25,4	1.793
55 Kakaoa, txokolatea, gozotegiko produktuak.	1.080	315	151	26,4	2.154	12.685	4.769	1.316	37,6	3.624
60 Ardo-industriak	4.773	1.258	584			6.120	2.238	693	36,6	3.229
Elikadura-industriak, edariak eta tabakoa.	90.413	21.590	9.940	23,9	2.172	150.573	49.608	14.829	32,9	3.345?
Manufaktura- eta energia- industria (energiari- eta urrik gabekoa)	383.484	124.660	53.062	32,5	2.349	1.614.580	628.919	253.398	39,0	2.482

Ekonomi Ihardueren Sailketa Nazional = EISN

duak kontutan hartu gabe, EKako elikadura-industriako enpleguaren %4,2 500 langiletik gorako enpresei dagokie, industrian, orohar estrato honek enpleguaren % 32,1 hartzen duenean. Gainera, erdi-mailako neurriak handiagoak badira ere, dimensio txikiago hori organizazio multinazional handiak diren produkzio-establezimientuetan ere ikus daiteke. Organizazio handi eta establezimientu txikien arteko sinbiosi honen esplikazioa lehen esandako hesi gogor horietan datza, produkzio-mailan ez badu ere bai organizazio-mailan.

-Hori horrela bada, neurri handi batean, talde multinazionalen eta enpresa handien aldetiko egunetik egunera sofistikatuagoak diren produktuak merkaturatzearen ondorioz izan da, baina baita ere bizitza-ohituretan sortu diren aldaketak eta denbora librearen balorazioak ere lekuko, ezin aipatzeke utzi sektore honen beste ezaugarri nabarmena, hau da, produktu berriak sortzeko abiada handiarena eta, orokorrago, sektoreak lortu duen enpresaritzako dinamismo altua.

- Dinamismo horri ez zaio arrotza masen eskariak betetzera zuzentzen deneko gertakizuna eta orokorki eskari hori egonkorra izatea, horri esker elikadurazko industriek beste sektoreek baino era malguagoan jasan bait dituzte 1974ean hasitako *krisiaren ondorioak*, eta honela, euskal kasuan, industriaren produkzioa termino errealetan 1975-1985


epealdian finko mantendu den bitartean, ia bikoiztu egin da elikadurazko sektorean.

Krisiak eragindako ondorio malguago hori enpleguaren ikuspegitik ikus daiteke, ekonomiaren osotasunean baino enplegu-galera txikiagoa gertatu bait da eta datu honek produktibitatearen ikuspuntutik adierazten diguna zera da: plantilen egokitzapenak sektorean izan duen atzerapena, zeren, azpimarratzekoa da elikadura, edariak eta tabakoaren euskal sektorean 1980 urtean hasten dela, eta ez lehenago, enpleguaren beherakada, azken lau urtetan % 14,5ean laburtu delarik sektorearen lan-indarra.

3. Maila produktiboan eskala-ekonomia garrantzitsuak ez egotearekin, eta sektorearen ihardueran enpresa handiak eta talde multinazionalak duten protagonismoarekin erlazionatuz, elikadurazko produkzioaren *internazionalizazio* altua konstata dezakegu. Izan ere jadanik 1986 urtean, estatuaren elikadura-produkzioaren guztizkoaren % 30 atzerriko partizipazioa duten enpresei dagokiela estimatzen bait da.

Sektorearen nazioarteko konpetitibotasunari buruzko aspektu garrantzitsu bat kostuaren eboluzioarena izan da, zeren, espainiar estatuaren guztizko erreferentzia kontutan hartzen badugu, azken urteotan laneko kostuek izan duten kontrako portaera aipatu behar bait da; hain zuzen ere 1980-85 epealdian sektorearen ordu-irabaziek batezbeste % 14,30ko hazkundera izan dute Espainian, EEEaren eboluzioa, batezbeste, % 9,6koa izan den bitartean.

Ordu-irabazien eboluzioa elikadura, edari eta tabakoaren sektorean (1975 =



4. Lurretiko elikadura osatzen duen multzoaz, ez produkzioaren ikuspegitik, *eskariaren* optikatik baino, giza kontsumorako diren elikadurazko produktuen oinarritzko ezaugarrietako bat, jadanik aipatu dugun egonkortasun horretaz gain, zera da: bere osotasunean harturik azken urteetako gastu erantsiak termino errealetan *geldialdi* bat erakusten du pertsona bakoitzeko, elikadura-eskariaren faktore dinamizatzaile bakarra biztanleriaren hazkunde begetatiboa bilakatu delarik. Gainera, ezin aipatu gabe utzi honako beste datu hau ere, hau da, estatu mailako hazkunde begetatibo hori oraindik ere kontutan hartzekoa bada (% 0,5 urteko), Euskal Herrian aldiz Bizkaia eta Gipuzkoako emigratio-saldoek irentsi egin dute biztanleriaren hazkunde begetatiboa, EKAKo biztanleria estabilizatua mantentzen delarik; Nafarroan ordea, biztanleriaren hazkunde positiboak atzeman daitezke, estatu

espainiarrarena baino zertxobait bajuagoa bada ere (% 0,2 urteko).

Elikadurazko gastu-mailak etxeko errenta-mailekin erlazionatuz gero, *elastikotasun-errentaren* kontzeptura iristen gara, zeina estatu espainiarrean 0,5 inguruan kokatzen dela estimatu bait dugu, hau da, familiatipo baten errenta % 10 altxatuko balitz, familia honen elikadura-gastua % 5 bakarrik igoko litzateke, eta bistan denez, zifra hauek aurreko konklusioa indartzen dute, alegia elikadura-sektorearena eskari egonkorrekoa izanik, baita geldoa ere, jakina bada ere handiak direla produktu batzuen eta besteren arteko desberdintasunak.

Grafikoago, hurrengo eskeman ikus daitezke produktuen arteko desberdintasunak, bere eskariaren dinamismoaren arabera (hazkundera) eta kontsumitzaileen aldetik emandako estima (elastikotasun-errenta).

Eskema. Elikadura-produktuen elastikotasunaren eta dinamikotasunaren arteko erlazioa.

dinamikotasun-eskaria								
Oso dinamikoa		Kafea Kakaoa	Freskag. eta edari ez-alkoholikoak Gozot., mermel. Fruitu kongelat. Yogur eta esnekial	Gaztak Gozotegia Arrainak, krust. Freskoak, kong.	Fruitu Lehorrak			
Dinamikoa			Fruti freskoak			Arrainak Kontser. eta prest		
Estatikoa	Elikadura, pastal irina eta labore gutxi transform.		Urdaitegia	Haragi prestatua Txahal haragia eta urtumea	Gozot., izozki. Lekari, barazki Kong., presta.			
Atzerakorra	Ogia, Hegazti-haragia Esne Kontserb.	Margarina Saltsahorrial etab.	Tea	Likoreak Beselako haragi eta kaskeria				
Oso atzerakorra	Arroza Olio jangarriak Lekari lehorrak Patatak Azukrea	Esne freskoa eta esterilizatua Barazki freskoa Mahai-ardoa		Zigarroak Txokolatea				
		< 0	- 0	0 - 0,5	- 0,5	0,5 - 1	- 1	> 1

Elikadurazko produktuen eskariaren portaera estatiko horri buruz, azpimarra dezagun berriro nekazal sektoreaz arduratu garenean esandako zerbait, hau da, eskari batere dinamikoa ez den hori sektore eskaintzaileetara transmititzen dela kostu bidez, ez bakarrik produkzio-bolumenekin loturik, baizik prezio-bidetik ere, hau da, ondorioz azken urteotan lurretiko elikadura industrian gertatu den prezioen gehikuntza txikiagoa, marjenak mantendu arren, kostuen murrizketa industriaren osotasunean baino exijentzia handiago bilakatu da.

Banaketa

Gutxi eta gehiago integraturik edo elkarturik diharduten eta banaketa-lanetan ari diren agente anitzez arduratuko gara orain, hau da, nekazal edo elikadura sektorearen eta azken kontsumitzailearen arteko bitartekaritza egiten duten horietaz. Oso era sintetizatuan bada ere, honako komentarioak egin genitzake:

1° Beroriena bitartekaritza-lana denez gero, erosketako prezio eta baldintzez *aurkako interesen* egoera sortzen da nekazal produktuen sektore banatzailearen eta enpresa transformatzaileen artean, eta enfrentamentu honen baitan enpresa edo sektore bakoitzari indar negoziatzailea emango dio, nolabait, saltzeko edo erosteko ahalmenaren dimentsioak.

2° Enfrentamentu honen ondorioz, neurri handi batean eta areago oraindik majoristen mailan minoristenean baino, merkataritza-sektorean, *organizazio, elkartze eta integrazioko* prozesu dinamikoa bat atzematen da, eta prozesu honen baitan gehien nabarmentzen dena, zalantzarik gabe, denda txikiak elikadura-merkatuan galtzen ari diren partaidetza da, hau da, autozerbitzuak ez diren ohizko denda txikien pisu erlatiboa 1976an % 67koa bazen, 1985ean % 36koan geratu da, eta esan behar da merkatal sektorearen kontzentrazio-prozesu hau Espainian bederen Europako beste herrialdetan baino motelago gertatzen ari dela eta esan bezala, ez bakarrik merkatalgo txikiaren egitura kontzentratuz baizik eta banatzaile-sektore osoarena ere.

Sektore banatzailearen produktibitatearekin hertsiki erlazionatuz, ezin dugu aipatzeke utzi sektore honetako prezioen eraketari buruzko gaia; honetaz esan dezakegu ez dirudiela erlazio unibokorik dagoenik merkatalgo detallista mota eta salmenta-prezioen artean, zeren, adibidez, ongi antolaturiko erdi-mailako auto-zerbitzutan (oinarritzko aukera, hornidurazko kanal merkeak, egiturazko gastu txikiak) detektatzen bait dira dimentsio handiagoko establezimentutan ikus daitezkeen prezio berberak. Dena dela, honek ez du esan nahi, orohar bederen, neurri txikiagoko dendan, askotan marjen eskase-

kin funtzionatu arren, neurri handiagokoak baino garestiagoak ez direnik.

Hala eta guztiz ere, elikadura-banaketan diharduten europar talde handien portaera aztertuz, *osagarritasunezko posibilitatea* atzematen da denda txiki eta handien artean eta hori organizazio bakar baten barruan ere, nahiz eta azpimarratu gabe ezin utzi banatzaile-talde honen portaeraren erregela orokorra dela euren establezimendu txiki askoren birmoldaketa, itxiera eta frankizian uzteko estrategiak jarraituz.

EEErekiko atxekimendua

Labur-labur besterik ez bada ere, ez dugu hitzaldi hau amaitu nahi EEErekiko atxekimenduaz hitz pare bat esan gabe.

Lurretiko elikadura sektorean, orohar, *internazionalizazio-gradu* altua konstata dezakegu, merkatal fluxuetan atzematen dena baino handiago oraindik, izan ere, eta esan dugunaren ildotik, sektorearen dinamika indartu duten talde multinazionalak beren garapena herrialde arteko merkantzien fluxutan oinarritu ordez, beren presentzia kapital-eragiketen bidez eratu dute, enpresa nazionalen kontrola aprobetxatuz merkaturen hurbiltasunaz baliatu dira. Internazionalizazio-testuinguru honetan sektore honetzat EEEan sartzeak dakartzan aukerak eta amenazuak ere jadanik martxan dauden egokitzapen-prozesuak bizkortzera bultzatuko dute sektorea, noski,

beti ere azpisektore bakoitzaren barne-konpetitibotasunaren arabera. Zentzu honetan, esan behar da produktu hauen euskal esportazioak ez direla oso esanguratsuak (azken datuen arabera elikagaien, edarien, eta tabakoaren esportazioa % 6aren azpitik kokatzen da) eta produktu gutxi batzutan kontzentratua dago: arrain-kontserbak, olioak, gantzak eta ardoak EKAtik, eta lekari, barazki eta fruta transformatuak Nafarroaldetik. Egoera honek adierazten diguna zera da, abiapuntu zaila dela gurea, eta, orohar, kanpo-konpetitibotasun eskasaren sintoma.

Nekazal sektorean zentratuz eta EEEan sartzeak konpetentziaren aldetik ekarriko dituen, onerako ala kalterako, ondorioak kontutan, azpisektore bakoitzaren ahalmena bere azpiegitura eta konpetitibotasunaren arabera egongo dira. Idea honetatik abiatuz aztertu dugu zein den azken urteotako nekazal produkzioak ematen duen *desplazamendu erregionala* espainiar merkatu bakarraren barruan. EKArentzat, eta bere produkzio-egitura ahularen ondorioz, asko dira, espainiar produktuekin konparatuz gero, kontrako eboluzioa eta desabantaila erlatiboa erakusten dutenak. Nafarroan aldiz, ugariak dira aldeko eboluzioa, eta ez barazkitan bakarrik, erakusten duten produktuak eta gainera nolabaiteko abantaila erlatiboa espainiar produktuekiko, nahiz eta baratz produktu garrantzitsu zenbaitetan eboluzio hori kontrakoa izan, piperra edo esparragua kasu, arlo honetan Nafarroak galdu egin

bait du bere merkatu-kuotaren zati bat, produkzio-mota horiek Espainiako beste lurraldetan izan duten hazkundearen trukean.

Azkenik, eta laburpen gisa, Euskal Herriko elikadura-transformazioaren sektoreak eskaintzen duen *garapeneko posibilitateetan* zentratuz, aldeko puntu bezala azpimarra dezakegu eskari egonkorra duen sektorea dela, eta orohar, maila produktiboan ez daudela sektorean sartzeko oztopo gogorak, eta horretaz aparte enpresaren *lekutasun-erizpideei* dagokienez, garrantzitsua da merkatu kontsumitzailetik eta lehengaien horniduratik gertu egotea. Alde honetatik bederen

EKAk eta Nafarroak ere abantaila esanguratsuak dauzkatela nabaria da. Gainera, bi Komunitate hauen harremanak, arlo honetan, osagarritasunaren bidetik doaz, lurretiko produktuen merkatal balantzatan ikus daitekeen bezala. Hala eta guztiz esan behar da, produkzioko erizpideak garrantzitsuak izanik ere, indarra galtzen ari direla *organizazioko erizpideen* aurrean, hala nola, merkataritzakoak, produktu eta merkatu berrien garapenak, publizitatea, marketing.a, etab., produkzioko neurriekin bakarrik pentsa zitezkeen baino zailtasun askoz handiagoekin aurkituko gara sektore honetan sartzeko orduan.

Merkatal balantza erregionala. Nafarroa. 1980

(M. Pta.tan)

Kontzeptua	Atzerria			Estatuaren gainerakoa			Guztirako saldoa Produkt. %
	Espor-tazioa	Inpor-tazioa	Saldoa	Espor-tazioa	Inpor-tazioa	Saldoa	
Nekazaritza	197,8	511,4	-313,6	12.144,5	5.786,3		
Abeltzantza	116,6	96,8	19,8	4.727,4	3.458,8		
Ehiza, zinegetika eta arrantza		104,7	-104,7	47,7	1.920,1		
Ohiantzantza	34,0	570,4	-536,4		1.360,3		
Lehen mailako produktuak	348,4	1.283,3	-934,9	16.919,6	12.525,5	4.394,1	
Olinoa eta gantza		0,2	-0,2	2.065,2	3.685,3	-1.620,1	-64,9
Haragi-industriak	271,1	111,6	159,5	4.438,9	4.722,3	-283,4	-1,2
Esneki-industriak	2,1	23,8	-21,7	5.159,3	1.107,9	4.051,4	53,4
Esneki eta landare-kontserbak	1.893,5	118,1	1.775,4	5.864,9	183,1	5.681,8	91,5
Erroteria eta abere elikadura	144,9	16,3	128,6	7.476,4	5.702,1	1.774,3	18,9
Ogia, opildegia, gozotegia eta gailetak	38,1		38,1	2.364,6	1.109,3	1.255,3	32,6
Bestelako elikadura industriak	347,3	1.176,1	-828,5	3.835,7	4.449,3	-613,6	-30,6
Ardo industria	800,1	3,6	796,5	1.500,1	1.864,3	-364,2	14,0
Edarizko bestelako industriak	15,6	3,6	12,0	2.214,3	1.846,4	367,9	11,9
Trabakoaren industriak					736,8	-736,8	
Produktu transformatuak	3.513,0	1.453,3	2.059,7	34.919,4	25.406,8	9.512,6	21,7
Guztira	3.861,4	2.736,6	1.124,8	51.839,0	37.932,3	13.906,7	16,4

Iturria: Nafarroako Foru-Komunitatea. Nafarroako kontu errejonalak, 1980.

EK-Aren merkatal balantza erregionala. 1980

(M. Pta.tan)

Kontzeptua	Atzerria			Estatuaren gainerakoa			Guztirako saldoa Produkt. %
	Espor-tazioa	Inpor-tazioa	Saldoa	Espor-tazioa	Inpor-tazioa	Saldoa	
Nekazaritza	103,8	9.326,4	-9.222,6	528,0	20.753,7	-20.225,7	-215,6
Abeltzantza	45,3	49,7	-4,4	6.217,0	5.965,7	251,3	1,3
Ohiantzantza eta ehiza	164,1	6.261,3	-6.097,2		8.709,4	-8.709,4	-312,7
Arrantza eta Arrantzantza	2.013,4	2.038,0	-24,6	5.638,4	1.089,4	4.549,0	28,9
Lehen mailako produktuak	2.326,6	17.675,4	-15.348,8	12.383,4	36.518,2	-24.134,8	-74,2
Haragi-industriak	641,3	542,4	98,9	1.596,0	20.970,8	-19.374,8	-189,1
Esneki-industriak	17,9	20,0	-2,1	3.156,8	9.515,4	-6.358,6	-62,6
Arrain-kontserbak	1.493,4	773,7	719,7	10.487,1	6.947,9	3.539,2	29,3
Ogia, opildegia, gozotegia eta gailetak	248,5	45,3	203,2	331,0	5.080,6	-4.749,6	-43,8
Kakao, txokolatea eta gozoak	231,9	13,9	218,0	6.606,5	2.644,9	3.961,6	50,7
Bestelako elikadura industriak	2.315,6	1.145,6	1.170,0	14.706,7	18.080,5	-3.373,8	-6,9
Edariak	2.822,1	684,0	2.138,1	12.885,7	12.441,9	443,8	13,3
Tabakoak		320,0	-320,0	2.528,2	2.739,9	-211,7	-13,3
Produktu transformatuak	7.770,7	3.544,9	4.225,8	52.298,0	78.421,9	-26.123,9	-20,3
Guztira	10.097,3	21.220,3	-11.123,0	64.681,4	114.940,1	-50.258,7	-38,1

Iturria: Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa. Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren Input-Output taulak, 1980.